

## » TELEGRAMA

Donibane Lohizuneko **Tristtan Mourguy** kantariak *Dual (½)*: *Gordeka* lan berria aurkeztuko du Iruñeko Katakarak kulturgunean, urtarrilaren 3an, 19.00etan **STOP Baiona-Euskal kostaldeko Orkestrak** *Urte berriko kontzertua* emanen du Baionako Lauga kiroldegian, urtarrilaren 7an (20:30etan) eta 8an (17:00etan): Philippe de Ezcurra (akordeoia), Beñat Achiary (kantua), Kristian Paul (baritonoa), Jean-Pierre Labaste (klarinetea) eta Marina Beheretche (biolina) musikariak ere izanen dira **STOP Donostiako Tabakaleran** berri, *DSS2016E. Bitakora-kaierak* erakusketa zabaldu dute, aldi berean, Kultur hiriburutzari buruzko iritziak jasoko dituzte urtarrilaren 22ra arte **STOP**

## » DISKOA

## Argiaren bila



Joxi Ubeda

**ADI!**

ADI!

Bonberenea Ekintzak, 2016

Jon Urbizu da ADI! taldearen arima. Barrerak hustu ditu diskoan dauden bost kantuen bidez. Bizitzako hainbat arlotako eta garaitako bizipenak, bere kezak, sentipenak eta emozioak islatu ditu zuri beltzean. Argia edo iluntasuna, zuria edo beltza. Argia aurkitzen ahalegindu da, iluntasunari aurre egin eta gaindituta.

Saxofoia jotzen du, Bonberenea Txarangako kidea da, eta musika eskolak ematen ditu. Diskoa osatzeko musikari hauekin jardun du: Mariano Hurtado (baxua, besteak beste Anarirekin eta Inoren Ero Ni taldearekin jotzen du), Antton Telleria (bateria eta perkusioak,

Dolce Tangana taldeko eta Bonberenea Txarangako kidea) eta Iker Pando (gitarra, Glaukoma taldeko kidea). Haiekin, batera, grabazio saioetan, Xabier Beldarrain (perkusioak), Jon Arruabarrena (flauta) eta Mikel Zelaia (grabazioa, nahasketak eta masterizazioa) aritu dira. Halaber, Xabier Goya diseinuaz arduratu da eta Imanol Urizar maketazioaz. Denen artean disko ederra egin dute.

Jon Urbizuk bere doinua sortu du, bere gogoa eta grina gauzatu, naturaltasunez, bere taldekideen laguntzaz. Lan esperimental baten emaitza da diskoa. Jazz, rock, reggae, blues eta musika afrikar ukituak antzeman daitezke kantuetan. Melodiak politak dira, iradokitzailak, eta erritmoak biziak dira une batzuetan eta lasaiagoak beste batzuetan. Musikariak apartak dira eta kantuen ongi osatu eta jantzi dituzte.

Jendaurreko emanaldiak egiten hasten direnean adi egongo gara, diskoaren mamia, kantuak, aurrez-aurre, zuzenean entzuteko eta bizitzeko, eta gozatzeko. ■



*Iker Pando, Jon Urbizu, Antton Telleria eta Mariano Hurtado, ADI! taldeko kideak (Argazkia: Bonberenea Ekintzak).*